

## **UDALBATZA OSOA**

### **Bilkura-akta**

Ohiko bilkura

**Eguna: 2017ko abenduaren 20a, asteazkena.**

2018ko urtarrilaren 17an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Legeak udalerrri honi eman dizkion zinegotzientzako hamaika aukietatik, bat okupatu barik dago Dolores Ruiz Zuazo (PP) zinegotziak uko egin ziolako 2016ko abenduaren 21ean. Eta horregatik, nahiz eta hamaika izan Udaltzako kideen legezko kopurua, orain hamar kide daude.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuretik eta arazko publikitatearekin. Honako hau da:

#### Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko azaroaren 15eko aurreko ohiko bilkuraren akta.
2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
  - 3.1. 2018. urterako establezimenduen ordutegi orokorra handitzea.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
  - 5.1. 2017ko euskararen nazioarteko eguna izendatzea.
  - 5.2. EH Bildu taldearen mozioa, urrunen dauden landako biztanleei mamografia-zerbitzua hurbiltzeari buruzkoa..
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
  - 6.1. Hurrengo urtean onartuak izango diren lege- eta araudi-ekimenei buruzko plan arauemailea.
  - 6.2. Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman sartzeko protokoloa. Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

#### **1. Onestea 2017ko azaroaren 15eko aurreko ohiko bilkuraren akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Villanueva Gutiérrez jauna:

3. orrialdean akats bat dago EH Bilduk A25 dela-eta proposatutako adierazpen instituzionalaren bozketan: Aldeko botoak: 3 (zortzi); baina hau jarri beharko luke: Aldeko botoak: 3 (hiru).

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2017ko azaroaren 15eko bilkurako akta, igorritako zirriborroaren arabera eta egindako oharra aintzat hartuta.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

## **2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.**

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatezaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2017ko 238/17tik 263/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

## **3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**

### **3.1.2018. urterako establezimenduen ordutegi orokorra handitzea.**

Gamarra jauna: Oyón-Oingo Udalak egun gehiago eskain ditzake?

Alkate jauna: Nahi izatekotan, establezimenduei urteko egun guztietan zabalik egoteko aukera eman dakieke, baina 2017an hamabost egun gehiagorekin nahikoa izan zen.

Aurrekariak:

1. Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuak xedatzen ditu jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jardueren ordutegiak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Udal-agintariek 2 ordu gehienez luzatu ahalko dute establezimenduak ixteko ordua. Horretarako arrazoiak zaindariaren jaiak edo beste jairen bat dira. Nolanahi ere, azken horiek bat etorri beharko dute dagokion urte naturalerako udal bakoitzak onartutako egutegiarekin.
2. 15 egunetan gehienez establezimenduak bi ordu beranduago ixteko egutegi-proposamena. Proposamena jendaurrean jarri da.
3. Ixteko ordua berandutzeko egutegi-proposamena jendaurrean jarri da eta ostalaritza-lizentzien jabeei banaka jakinarazi zaie.
4. Ez du inork proposamen berririk, erreklamaziorik edo oharrik egin. Horrenbestez, egindako proposamenarekin ados daudela auresuposatzen da.
5. Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onartzea ixteko ordua 2 (bi) ordu berandutuko den egunen egutegia. Bertan, honako hau zehazten da:
  - Urtarrilaren 20a eta 21a, San Bizente eta San Anastasio jaiak.
  - Otsailaren 10a, Inauteriak.
  - Apirilaren 27a eta 28a, San Prudentzio.
  - Ekainaren 23a, San Juan.

- Uztailaren 28a, Blusaren Eguna.
  - Abuztuaren 22tik 27ra, Esker-emate jaiak.
  - Abenduaren 24a, Gabon-gaua.
  - Abenduaren 31, Urtezahar-gaua.
- 2) Ordutegi-luzapena honako muga eta ekiteko baldintza hauekin onartuko da:
- a) Egun horietan ordutegia bi orduz luzatzeak suposatzen du lokal guztien itxiera-ordutik irekiera-ordura sei orduko epea igaro beharko dela gutxienez.
  - b) Horrek, edonola ere, ez du eraginik terrazen ordutegian, eta, ondorioz, 00:00etan bukatuko da. Ordu hori heltzean eta ordu erdiko gehienezko epean, bide publikotik kenduko da edo gutxienez, bilketa-ordua baino beranduago altzariak inork berriro ez jartzeko moduan bildu beharko dira.
  - c) Luzapena orokorra da lokal guztietarako eta ezin izango dira luzapen bereziak eskaini.
- 3) Ordutegien luzapena Eusko Jaurlaritzari, Segurtasun Sailari, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzari eta Guardiako Ertzain-etxeari jakinaraziko zaie.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

#### **4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**

#### **5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**

##### **5.1.2017ko euskararen nazioarteko eguna izendatzea.**

Eslava Guillerna andreak euskaraz irakurri du jarraian hitzez hitz jasota dagoen adierazpena:

Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez

Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.

Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.

Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.

Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak...

Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.

Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.

Bide berriak, bide guztiak

Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.

Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.

Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.

Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzaren berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Erabileraren mesedetan. Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.

Ideen konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunetik errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.

Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.

365 egun

Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.

Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahalduz.

Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegon eta Erronkarin.

Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.

Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.

Euskara auzolana baita.

Villanueva Gutiérrez andreak euskaraz hitz egin du: Eskertzen dut adierazpena euskaraz irakurri izana...

## **5.2.EH Bildu taldearen mozioa, urrunen dauden landako biztanleei mamografia-zerbitzua hurbiltzeari buruzkoa.**

Villanueva Gutiérrez jauna: Segurtasun Sailak minbizia goiz aurkitzeko programetako zerbitzuetara jotzeko zailtasunak eduki ditzaketan landa-inguruko biztanleengan arreta berezia jarri behar du, gehien bat emakumeengan bularreko minbizia goiz aurkitzea errazteko. Ez dago arazorik diagnostikoen % 100 bermatzeari buruz EAJ-PNVk proposatutako eranskina gehitzeko.

Alkate jn.:

Villanueva Gutiérrez jauna: Mozioa irakurri du:

Herritarrei osasun-zerbitzuetarako sarbidea erraztea. Izan ere, zerbitzu horiek hurbiltzea beharrezkoa da ikuspuntu integral batetik osasun-eskubideak bermatzeko, asistentziako ikuspuntutik ez ezik, osasun-sistema modu integral batean bultzatzeko: prebentzioa, diagnostikoa, tratamendua edo zaintzak, besteak beste.

Bestalde, EAEn bularreko minbizia hautemateko programa indarrean dago 1995etik. Nolanahi ere, programa hori gero zabalduago dago herritarrengan: gaur egun, programara jotzeko zailtasunak dituzten pertsona askok parte ez hartzen bukatzen dute.

Horrela, osasunerako eta osasun-sistema mantentzeko horren onuragarria den zerbitzu hori helburu dituen pertsonen hurbildu beharko genieke eta zerbitzuaren erabiltzaile kopurua handitu.

Aurretik aipatutakoa dela eta, Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatu dio:

- 1.. Mamografiak egiteko unitate ibiltaria jartzea bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarraren programarako. Horrela, zerbitzua ospitaleetatik urrun bizi diren pertsonen hurbilduko zaie. Programa hori gaur egun ospitaleetan besterik ez da egiten. Horren guztiaren asmoa programa erabiltzaile gehiagori helaraztea da, diagnostikoen % 100 bermatzeko hainbat ospitaletan egituraketa-neurriak ezartzen diren bitartean.
- 2.. Eskuragarri dauden baliabide guztiak erabiltzea mamografiak egiteko unitate ibiltari hori ahal beste optimizatzeko, eta, ondorioz, 50 eta 69 urte arteko emakume gehiago atxikitzea bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarraren programara.

EH Bildu Oionen proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Mozioa onetsi da.

## **6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**

### **6.1 Hurrengo urtean onartuak izango diren lege- eta araudi-ekimenei buruzko plan arauemailea.**

Aurrekariak:

- 1) 39/2015 Legearen 132.1 artikulua xedatzen duenaren arabera. 1. Arau Plangintza. Urtero, administrazio publikoek arau-plangintza berria argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onartuak izateko aurkeztuko diren lege- edo arautegi-ekimenak jasoko dira.
- 2) Urteko plan arauemailea onartzea ordenatzen iraunderako beharrezko betebeharra da.
- 3) Oyón-Oiongo Udaleko plan arauemailea ezarri nahi diren udal-ordenantzen bidez osatzen da. Azken horien ordenan premia jasotzen da:
  - I.Administrazio elektronikoaren ordenantza erregulatuzailea.
  - II.Aurretiko jakinarazpen eta deklarazio arduratsuen mendeko obren udal-ordenantza arautzailea.
  - III.Aurretiko jakinarazpen eta deklarazio arduratsuen mendeko jardueren udal-ordenantza arautzailea
  - IV.Kutsadura akustikoaren, zarataren eta bibrazioen ordenantza erregulatuzailea.
  - V.Udal-lokalen erabilerarako ordenantza erregulatuzailea.
- 4) I. ekimenaren motibazioa da urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea indarrean dagoela 2016ko urriaren 2tik. Horrez gain, ahalordeei buruzko erregistro elektronikoek, erregistro elektronikoak, gaitutako enplegatu publikoen erregistroak, administrazio elektronikoaren sarbide-puntu orokorrak eta artxibo bakar elektronikoak 2018ko urriaren 2an izango dute eragina, hau da, legea indarrean jarri baino bi urte geroago.
- 5) II. eta III. ekimenak 39/2015 Legearen 69. artikuluan xedatutakoa egiteko beharrezko oinarritzen dira.

- 6) IV. ekimenaren bitartez lortu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoaren hots-kutsaduraren gaineko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua aplikagarria izatea.
- 7) Udal-lokalen erabilera araututa dago. Dena dela, komenigarria izan daiteke araudia aldatzea baina ez da premiazkoa. Gardentasuna arautzea geroratu da Eusko Legebiltzarrak gardentasun-legea onartu arte, jakinda lege hori orain lantzen ari direla.
- 8) Diru-laguntzen erregulazioa aurrekontua betearazteko udal-legearen bitartez egituratuta dago. Hala ere, lege horretan hainbat doikuntza egin behar dira.
- 9) Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onartzea 2018 ekitaldirako gehitu nahi diren udal-ordenantzen inguruko Oyón-Oingo Udaleko plan arauemailea. Azken horren ordenan premia jasotzen da:
  - I. Administrazio elektronikoaren ordenantza erregulatzaileria.
  - II. Aurretiko jakinarazpen eta deklarazio arduratsuaren mendeko obren udal-ordenantza arautzaileria.
  - III. Aurretiko jakinarazpen eta deklarazio arduratsuaren mendeko jardueren udal-ordenantza arautzaileria.
  - IV. Kutsadura akustikoaren, zarataren eta bibrazioen ordenantza erregulatzaileria.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

## **6.2. Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman sartzeko protokoloa.**

Aurrekariak:

1. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak (aurrerantzean, SPKL), 63.1 artikuluan kontratatzailearen profila arautzen du. Horrek kontratazio-organoei euren kontratatzailearen profila Interneten bidez eta ez beste bide baten bidez hedatzeko betebeharra ezartzen dio. Horrela bada, elementu horrek batzen ditu kontratu-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak, horien gardentasuna eta irisgarritasuna bermatze aldera. Pleguetan eta agiri baliokideetan ez ezik, lizitazioko iragarkietan ere jasota geratu behar da kontratatzailearen profileria iristeko modua. Kontratatzailearen profila zabaltzearekin batera bideragarria da bestelako argitalpen-bideak erabiltzearekin, horrela ezarrita dagoen kasuetan.
2. Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko 20/2013 Legeak dagoeneko exijitzen zuen kontratazio-organo guztien kontratatzailearen profila gehituta egotea Sektore Publikoko Kontratuen Plataforman edo zegokion autonomia-erkidegoko baliokidean.
3. SPKLren 347.2 artikuluan xedatzen da "estatuko sektore publikoko erakunde guztien organoen kontratatzailearen profil guztiak derrigorrean gehitu beharko direla Sektore Publikoko Kontratuen Plataforman. Horrela, plataforma horren bidez bakarrik kudeatu eta zabalduko dira".
4. Beharra indartzeko, legeak bi ondorio ezarri ditu:
  - a. Lizitazioaren iragarkia plataforman gehitutako profilean ez argitaratzea kontratuak baliogabetzeko arrazoia da. (39.2.c art.).
  - b. Eskaintzak aurkezteko epea lizitazioaren iragarkia plataforman argitaratzen denean hasiko da (SPKLko 134.2, 156.6 eta 159.3 artikulua).

5. Horrenbestez, SPKLko 347.3. artikuluko azken paragrafoak adierazten du tokiko administrazioaren kontratazio-organismoek aukera dutela, modu baztertzaila eta eskusiboan, autonomia-erkidegoak ezarritakoaren arabera informazio-zerbitzuan euren kontratatzailearen profila argitaratzeko edo Sektore Publikoko Kontratuen Plataforman gehitzeko. SPLKren 347.4. artikulua xedatzen du kontratatzailearen profila jasaten duen sistema informatikoa gailu bat eduki beharko duela. Horren bidez, sistemara gehituko den informazioa zabaltzen den momentua modu frogagarrian egiaztatzea ahalbidetuko da.
7. Beharrezkoa da gure kontratatzailearen profila plataformara berehala gehitzea.
8. Plataforma Kontratazio Publikoa Euskadin - Contratación Pública en Euskadi plataforman (hemendik aurrera Kontratazio Publikoa Euskadin, KPE Plataforma) integratzeak 63. eta 347. artikuluek ezarritako beharrak betetzea ahalbidetzen du.
9. Kontratazio Publikoa Euskadin KPE Plataforma Eusko Jaurlaritzak sortu dituen erreminta multzoaz osatuta dago. Erreminta multzo horren helburua da kontratuen legegintza-esparruan sektore publikoko kontratuei babesa ematea. Esparru hori Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek garatu beharko dute. Kontratazio Publikoa Euskadin KPE plataformaren integrazioak berarekin dakar estatuko plataforman lizitazioen deialdiak eta azken horien emaitzak argitaratzea eta Estatuko Kontuen Erregistroan dauden kontratuak bidaltzea. Horren bidez, kontratu publikoen esparruan publizitate- eta gardentasun-kontuetan lege-betebeharrak beteko dira.
10. Kontratazio Publikoa Euskadin KPE plataformaren barruan sartutako tresnak erabiltzeak berarekin dakar prozesu teknologiko eta funtzionalak onartzea, eta, aldi berean, tresna horien etorkizuneko garapenean parte hartzeko aukera ematen du.
11. Ekonomia Informazio Batzordeak 2017ko azaroaren 8an eta abenduaren 13an eginiko proposamena.

Hau erabaki da: Oyón-Oiongo Udaleko kontratatzailearen profilaren argitaratzeko Kontratazio Publikoa Euskadin KPE Plataforman, administrazio horretako kontratazio-organismo guztietan.

1. Baimentzea Oyón-Oiongo Udalaren harpidetza-protokoloa Kontratazio Publikoa Euskadin KPE plataforman.
2. Onartzea Kontratazio Publikoa Euskadin KPE plataforman sartzeak eskatzen dituen beharrak. Behar horiek 8, 9 eta 10 aurrekarietan zehazten dira eta honako hauek dira:
  - lizitazioen deialdiak eta azken horien emaitzak estatuko Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratzeko eta Estatuko Kontuen Erregistroan dauden kontratuak bidaltzeko beharra. Horren bidez, kontratu publikoen esparruan publizitate- eta gardentasun-kontuetan lege-betebeharrak beteko dira.
  - a. Kontratazio Publikoa Euskadin KPE plataformako tresnak erabiltzea. Horrek prozesu teknologiko eta funtzionalak onartzea inplikatzeko du eta azken horien garapenean parte hartzeko aukera ematen du.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Eguneko aztergaien zerrendan zeuden gaien azterketa behin bukatuta eta galderak eta eskariak puntura pasatu baino lehen, alkate jaunak honako gai hau gehitzea eskatu du premiazkoa izateagatik:

- 2018ko abenduaren 31n epemuga duen kreditu-kontuko banku-kontratua.

Bozkatu da premiazkoa izateagatik honako gai hau gehitzea:

- 2018ko abenduaren 31n epemuga duen kreditu-kontuko banku-kontratua.

Alkate jauna: Hasieran, gaia ez zen eguneko aztergaien zerrendan gehitu, baina konturatu gara kontratua Udalbatzaren akordio baten bidez baimendu behar dela. Hori dela eta, zinegotzietan kontratazio-mahaiak akordio-proposamenarekin.

Hau erabaki da:

- 1) Premiazkoa izateagatik honako gai hau gehitzea: 2018ko abenduaren 31n epemuga duen kreditu-kontuko banku-kontratua.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Gaiok premiazkoak izateagatik eguneko aztergaien zerrendan gehitu dira eta jarrian, jakinarazi dira azken horien inguruko deliberazio eta bozketak.

## **7. 2018ko abenduaren 31 muga-egun duten kreditu-kontuen banku-kontratua.**

Alkate jaunak kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzen aktaren berri eman du:

1. Kutxabank, irekitze-komisioa: % 0, interes-tasa: % 0,23 (finkoa) urtero, erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 urtero, hiruhilekoko sortzapen-interesak.
2. Santander, irekitze-komisioa: % 0, interes-tasa: % 0,12 (finkoa) urtero, erabili ez den saldoaren komisioa: % 010, hiruhilekoko sortzapen-interesak. Oharrak: urtero lagatako negozio kopurua hazi beharko da.
3. Laboral kutxa, irekitze-komisioa: % 0, interes-tasa: % 0,24 (finkoa) urtero, erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 urtero, hiruhilekoko sortzapen-interesak.
4. La Caixa, irekitze-komisioa: % 0,18, interes-tasa: Euribor % + 0,25 (finkoa) urtero, erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 hiru hilero, hiruhilekoko sortzapen-interesak.

Halaber, jakinarazi da Santander bankuaren 2. eskaintzaren egoeraz. Honako hau da: “urtero lagatako negozio kopurua hazi beharko da”; administrazioak ezin du onartu eta edozein kasutan ez dago hori negoziatzeko aukerarik.

Ohartarazi da 2017 ekitaldian erabili ez den saldoaren % 0,10eko (urteroko sortzapena) xedapen-komisioa kontuan hitzartutako baldintzak izan arren, sortu egin dela eta hiru hiruhilekotan kargatu dela.

Kontratazio-mahaiak honako proposamen hau egin du:

- Kutxabanki ematea urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua. Hauek dira Kutxabanke proposatutako baldintzak: zenbatekoa: 500.000 euro; ezeztatze gehieneko epea: 2018ko urriaren 31, erabili ez den diruaren gaineko urteroko interes-tasa nominala: % 0,23; berrikusketa barik; irekitze-komisioa: % 0; erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 urtero (urteroko sortzapena); formalizazioa: udalaren fede-emaile publikoaren aurrean, udaleko idazkaria.

### Aurrekariak

1. Administrazio honek Banco de Santanderrekin kreditu-kontua hitzartuta dauka. Honako hauek dira kontu horren baldintzak: 500.000 euro; ezeztatze gehieneko epea: 2017ko abenduaren 31, erabili ez den saldoaren gaineko urteroko interes-tasa nominala: % 0,29; berrikusketa barik;

- irekitze-komisioa: ez; erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 urtero (urteroko sortzapena).  
formalizazioa: udalaren fede-emaile publikoaren aurrean.
2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 4. artikuluan, 1 atalean, 1 letran, xedatutakoa aplikatu behar da. Bertan, adierazten da Sektore Publikoko Kontratuen Legetik at daudela honako hauek: baloreen edo beste finantza-tresna batzuen igorpen-, salmenta-, erosketa- eta transferentzia-zerbitzuekin lotutako negozioak eta harreman juridikoak, bereziki estatuko finantza-kudeaketarekin lotutako operazioak eta sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateek funtsak edo kapitala lortzeko egindako operazioak, baita Espainiako Bankuak eta diruzaintza-zerbitzuek eskaintako operazioak ere.
  3. Arabako Lurralde Historikoko Erakunde Lokalen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 56.1 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Bertan, adierazten da tokiko erakundeek aukera dutela eskatzeko, edozein finantza-entitatearen bidez, haien ordainketen eta diru-sarreraren epemuga-diferentziek sortutako behin-behineko likidazio-defizitak betetzeko diruzaintza-operazioak urtebete baino gutxiagoko epean, Tokiko Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

---

  4. Uztailaren 19ko Tokiko Ogasunei buruzko 41/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Bertan zehazten dira arau horren eta instituzio eskudunek ezarritako xedapenen esparruan, Arabako Lurralde Historikoko udalerriek eta erakunde autonomoek aukera dutela, Udalbatza Osoan adostutakoaren ostean, honako hau eskatzeko: b) Diruzaintza-operazioak edozein finantza-erakunderekin eta urtebeteko gehieneko epean, diruzaintzan eduki ditzaketan behin-behineko beharrei erantzuteko.
  5. Tokiko Ogasunei buruzko Lege Erregulatuzailearen testu bateginaren 51. artikuluan epe laburreko kreditu-operazioei buruz xedatutakoa aplikatu behar da. Honako hau dio: diruzaintzaren behin-behineko beharrei erantzuteko, tokiko erakundeek urtebete baino gutxiagoko epe laburreko kreditu-operazioak eskatu ahalko dituzte, betiere haien osotasunean aurreko ekitaldiko ohiko operazioen bidez likidatutako sarreraren % 30 gainditzen ez badute. Salbuespena izango da operazioa urteko lehen sei hilabeteetan egin izana ekitaldi horren likidazioaren aurrekontutik gabe. Kasu horretan, aurreko ekitaldiaren likidazioa hartuko da kontuan. Aipatutako egoeretan, epe laburreko kreditu-operaziotzat hartuko dira, besteak beste, honako hauek: b) diruzaintzaren behin-behineko desfaseak betetzeko finantza-erakundeek emandako mailegu edo kredituak.
  7. Espedienteari hasiera ematea finantza urteko kreditu-kontuaren kontratua hitzartzeko finantza-erakunde batekin. Diruzaintza-operazio horren helburua da kobrantzen eta ordainketen arteko desfasea ekiditea. Espediente hori hasteak Oyón-Oionen bulegoa duten banku-erakundeak gonbidatzea dakar. Eskaintzan adieraziko dira erabilitako diruaren gaineko interes-tasa eta kasu bakoitzean aplikatu behar diren banku-komisioak. Operazio bertan behera geratu beharko da 2018ko abenduaren 31n.
  
  9. 88.6 artikuluan xedatutakoaren arabera kontratuaren balio estimatua 1.450 eurokoa da.
  10. Kutxabankena izan da proposamenik abantailatsuen. Hauek dira proposatutako baldintzak: zenbatekoa: 500.000 euro; ezeztatzeko gehieneko epea: 2018ko urriaren 31, erabili ez den diruaren gaineko urteroko interes-tasa nominala: % 0,23; berrikusketa barik; irekitze-komisioa: % 0; erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 urtero (urteroko sortzapena); formalizazioa: udalaren fede-emaile publikoaren aurrean, udaleko idazkaria.
  11. 2017ko abenduaren 13ko saioan kontratazio-mahaiak egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Kutxabanki ematea. Hauek dira Kutxabanke proposatutako baldintzak: zenbatekoa: 500.000 euro; ezeztatze gehieneko epea: 2018ko urriaren 31, erabili ez den diruaren gaineko urteroko interes-tasa nominala: % 0,23; berrikusketa barik; irekitze-komisioa: % 0; erabili ez den saldoaren komisioa: % 010 urtero (urteroko sortzapena); formalizazioa: udalaren fede-emaile publikoaren aurrean, udaleko idazkaria.
2. Alkate jauna, Eduardo Terroba Cabezón, behar diren dokumentuak sinatzeko gaitzea.
3. Arabako Foru Aldundiari, Tokiko Administrazio eta Lurralde Oreak Sailari erabakia jakinaraztea.

Aldeko botoak: 5 (bost); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 3 (hiru); Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion)

### **Azken puntua) Galderak eta eskariak**

Villanueva Gutiérrez jauna: Noiz aurkeztuko digu alkateak aurrekontua?

Alkate jauna: Nire asmoa 2018ko Foru Planaren inguruan erabakia egon arte itzarotea zen, baina teknikariek ez dute ebaluazio-bisita urtarilaren erdialdera arte egingo. Horregatik aurrekontua otsaileko osoko bilkuran aurkezteko prestatuko dugu...

Villanueva Gutiérrez jauna: LABek Udaltzuz baloratzeko komunikatua aurkeztu du eta EH Bildu Oion laguntzeko prest dago.

Campos Latre jauna: Talde politikoei baliabideen zenbatekoa jakinarazi zaigu eta talde Popularrari zegokiona 0 euro zen. Talde Popularrari dagokion zenbatekoa 625 euro da eta absentiengatik 800 euroko deskontua dugu. Ez nago ados likidazio-sistema honekin.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2017ko abenduaren 27an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE